

KARTEL LEHIAKETA

Legazpin ospatzen den "GIPUZKOAKO ARTZAIN EGUNA" iragartzeko

LEHIAKIDEAK

- Edonork parte har dezake lehiaketan.

BALDINTZAK

- Kartelaren neurriak honakoak izango dira: 68 cm luzeraz eta 48 cm zabaleraz.
- Kartelak derrigorrez honako edukia izan behar du:

Gipuzkoako Artzain Eguna
Legazpin
2016eko irailaren 4an Euskal Herria plazan



- Era berean, Artzaintzari lotutako berezitasunen bat agertuko da.
- Kartela egiteko edozein teknika erabil daiteke.
- Epaimahaiak baztertu egingo ditu Gipuzkoako Artzain Egunarekin zerikusia ez duten kartelak.

AURKEZTEKO MODUA

- Kartelak euskarri gogorrean edo digitalean aurkeztuko dira eta egilearen datuak jarri gabe.
- Kartelaren atzeko aldean lelo edo esaera bat idatziko da. Digitalean aurkeztu ezker, CD batean ekarriko da eta esaeraren izenburua jarriko da. Kartelarekin edo CD-arekin batera karta bat aurkeztuko da. Kartaren kanpoko aldean kartelaren lelo edo esaera idatziko da; eta barruko aldean, eragilearen datuak: izen-abizenak, helbideak, telefono zenbakia, etb...

KARTELAK NON AURKEZTU

- Kartelak Legazpiko Udalean aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera 8:00-15:00. Postaz ere jaso ahalko dira.

KARTELAK AURKEZTEKO EPEA

- Lanak 2016eko uztailaren 8ko 15:00 baino lehen aurkeztu beharko dira.

EPAIMAHAIA

- Gipuzkoako Artzain Eguneko batzorde antolatzaileak osatuko du epaimahaia; eta honek hartzen duen erabakia apelaezina izango da.

IRABAZLEA

- 2016eko uztailaren 20an jakitera emango da: nor izan den irabazlea eta saria hartzeko eguna eta tokia Udaleko webgunean, Facebook-ean eta Komunikabideetan. Epaimahaiak saririk ez ematea erabaki dezake, aurkeztutako kartelek behar besteko mailarik ez dutela uste badute.

SARIA

- Sari bakarra izango da, 500 euro.

LANAREN JABETZA

- Gipuzkoako Artzain Eguneko batzorde antolatzailea izango da saritutako lanaren jabea eta eskubidea izango du erakusteko, erabiltzeko edo argitaratzeko.

LANEN ITZULKETA

- Irailaren 11tik hasi eta 30 eguneko epearen barruan jaso beharko dute egileek saritu gabeko lanak. Horretarako egilea bera edo hark baimendutako pertsona aurkeztuko da udaletxean.
- Lanen itzulera data pasatakoan, Gipuzkoako Artzain Eguneko batzorde antolatzailea aurkeztutako lanen jabea izatera pasako da eta eskubidea izango du berarekin edozer egiteko.

OHARRA

- Parte-hartzaileek kontuan hartu beharko dute:
 - a) Kartela Euskara hutsean izan beharko da.
 - b) Hizkuntza sexistarik ez erabiltzea.